

## **AUZOKO AHOTSAKI!, HAUR PARTAIDETZARAKO FORO HONEK BERE ESKAERAK AZALDU DIZKIE UDAL ARDURADUNEI**

Ekialdeko sei ikastetxe publikoetako ikasleak alkatearekin eta udal-gobernuko kideekin bildu dira udaletxeko osoko bilkura aretoan, baita departamentuko teknikariek eta zuzendariek ere, auzoetan eta hiri osoan dituzten kezkak eta hobekuntza-eskaerak azaltzeko.

Auzoko Ahotsak Ekialdeko Barrutiko Haurren Partaidetzarako Foroa da, Udaleko Gazteria eta Hezkuntza sailek sustatua, eta ikastetxeek azken hilabeteetan bere proposamenak landu dituzte hainbat arlotan, hala nola ingurumenean, trafikoan, bidegorrietan eta garraioan, bidegarbiketan, parke eta espazio publikoetan, segurtasunean eta kirol-azpiegiturretan, besteak beste.

Bileran parte hartu dute Donostiako alkateak, Carlos García Hiri Mantenimenduko zinegotziak, Iñaki Gabarain Kiroletako zinegotziak, Olatz Yarza Mugikortasuneko zinegotziak, Juantxo Marrero Ingurumeneko zinegotziak, Mariaje Idoeta Auzoetako eta Herritarren Partaidetzako zinegotziak eta Cristina Lagé Aniztasuneko, Inklusioko eta Berdintasuneko zinegotziak.

Lagék adierazi duenez, "ekintza honen helburua haurren parte-hartzea lortzea, subjektu politiko aktibo izatea eta hirian eragiteko gaitasuna sustatzea da".

Osasun Publikoko, Cristina Enea Fundazioko, Hiri Mantenimenduko eta Herritarren Partaidetzako udal-zuzendari eta teknikariak ere bileran izan dira, besteak beste.

Ekimen hau Ekialdeko Barrutian garatu da, baina ez da bakarra izango. Mendiola, Herri Ametsa, Asuncion, La Salle, Altza Herri Ikastetxea eta Herrera ikastetxeetako ikasleek parte hartu dute, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoek.

Ikastetxeekin bilerak egin dira eta, ondoren, haurrekin saioak auzoka. Saio horietan auzoen beharrak aztertu dituzte, interesatzen zaizkien gaiak azaldu dituzte eta, horrela, proposamenen zerrenda egin dute.

Orain Udaletxean aurkezteko ordua iritsi da. Horrela, aurkezpen ekitaldi bat egingo da proposamen guztiekin. Hori guztia udal ordezkariekin partekatuko da ekainaren 12an udaletxeko osoko bilkura aretoan egingo den ekitaldian.

## **AUZOKO AHOTSAKI!, FORO DE PARTICIPACIÓN INFANTIL DEL DISTRITO ESTE EXPONE SUS PETICIONES A LOS RESPONSABLES MUNICIPALES**

Escolares de seis centros públicos del Distrito Este se han reunido en el salón de Plenos del Ayuntamiento con el Alcalde y miembros del gobierno municipal, así como técnicos y directores de departamento, para exponerles sus preocupaciones y peticiones de mejora en sus barrios y en el conjunto de la ciudad.

Auzoko Ahotsak es el Foro de Participación Infantil del Distrito Este impulsado por los departamentos de Juventud y Educación del Ayuntamiento y en el que los centros escolares han venido trabajando en los últimos meses sus propuestas en materias como medioambiente, tráfico, bidegorris y transporte, limpieza viaria, parques y espacios públicos, seguridad, o infraestructuras deportivas, entre otras materias.

En la reunión ha participado el Alcalde de San Sebastián y los concejales de Mantenimiento Urbano, Carlos García, el de Deportes, Iñaki Gabarain, la concejala de Movilidad Olatz Yarza, de Medio Ambiente Juantxo Marrero, de Barrios y Participación Ciudadana, Mariaje Idoeta y la de Diversidad, Inclusión e Igualdad, Cristina Lagé.

Lagé ha señalado que “el objetivo de esta acción es conseguir la participación de niños y niñas, fomentar su condición como sujeto político activo y su capacidad de influir en la ciudad.”

También han acudido a la reunión los directores y técnicos municipales de Salud Pública, Fundación Cristina Enea, Mantenimiento Urbano, Participación Ciudadana, entre otros.

Esta iniciativa se ha desarrollado en el Distrito Este, aunque no será el único. Han participado escolares de los colegios Mendiola, Herri Ametsa, La Asunción, La Salle, Altza Herri Ikastetxea y Herrera de 5º y 6º de primaria.

Se han realizado reuniones con los centros escolares y después sesiones con los niños y niñas por barrios. En estas sesiones han analizado las necesidades de sus barrios, han explicado los temas que les interesan y de esta manera han elaborado un listado de propuestas.

Ahora ha llegado la hora de presentarlo en el Ayuntamiento. Así, se celebrará un acto de presentación con todas las propuestas. Toda la elaboración será compartida con los/as representantes municipales en un acto que tendrá lugar el 12 de junio en el salón de plenos del Ayuntamiento.